

TEKNOLOGIA

Lana eta teknologia



DIANA FRANCO

10 urte nituela heldu zen gure etxera ordenagailu bat, 5 1/4eko disketeak zituen, kolore ugari-koak. Gorriak MS-Dos sistema eragilea martxan jartzen zuen, urdinak testu editorea, horia marrazketa programa zen... Orduak sartzen nituen ordenagailuan.

Garai hartan, akats ortografikoak genituenean hitzak ehunka aldiz errepikatze- ra behartzen gintuzten irakasleek. Uler-tzen nuen irakasleen helburua, baina oso burugogorra nintzen eta errepikatzeak ez zidan ezertarako balio, nire arreta eta interesak ez baitzeuden ortografian. Beraz, lan hori egiteko lasterbide bat bilatu nuen, disko urdinarekin, testu editorearekin, kopiatu eta itsatsi egiten nituen hitzak eta minutu batean lana eginda zegoen.

Atzo lagun on batek ChatGPTaren inguruan hitz egin zidan. Adimen artifi-zial bat zeina eremu digitalari loturiko ia edozein gauza automatikoki sortzeko garatua izan den: abesti bat, testu bat, programa bat, webgune bat, eskolarako lan bat... Denon eskura dago, eta bertsio bakoitzak lan berriak aurrera eramateko aukerak ekarriko ditu.

Orokorrean, gizakiok teknologia asmatzen dugu ezin ditugun lanak egiteko edota egiten ditugun lanak errazteko. Dugun gizartean, ordea, bizitza on bat izateko lana behar dugu, eta lana gaur egun etengabe birsortzen eta bilakatzen ari den materia aldakorra da. Lanaren ideia horrek bere baitan lan ugari dakar-tza: ikasketa etengabea, esparru askotan lan egiteko eskakizuna... eta errealtate horretan automatizazioak laguntza di-rudi, baina aldi berean konplexutasuna areagotzeko bide bilakatzen ari da. Kon-plexutasun horretan, botere harremanak ulertzea ere zailtzen da. Eta ikusten dugu ezagutza gutxiko lan aukerak murriz-ten doazela, teknologia metatzen doa-la modu gero eta merkeagoan; gizakion belaunaldi berriak ordea zerotik hasten dira beti, eta guretzat gero eta lan han-diagoa da teknologiari gure bizitzetan ezarri diogun erritmoa harrapatzea. ●

ANALISIA



Eskola digitalak sortzen duen lilura eta beldurra

MIKEL GARCIA IDIAKEZ

Eskoletako digitalizazioak atzera-bueltarik ez duen garaiotan, teknologiaren dir-dirak sortzen duen lilura bezainbestekoa da mesfidantza eta zuhurtzia: horren lekuko, adimen artifizialean oinarritutako ChatGPT sistema debekatu duela New Yorkeko Hezkuntza sailak, AEBetako eskola publiko sare handiena duenak.

ChatGPT delakoa kapaz da bera bakarrik testuak sortu eta garatzeko –gai jakin bati buruzko saiakera, esaterako– eta galderak azkar erantzuteko, ikasleei pentsamendu kritikoaren atak itxiz, argudiatu dute. Debekuak debeku, adimen artifiziala ere lehenago edo beranduago sartuko da hezkuntzan, zuzenean edo zeharka, eta teknologia berri hori ikasgelan nola baliatuko ote den pentsatzen jarrita, komeni da orain arteko esperientziak aintzat hartzea: Eskola 2.0 eta gisako programen inpaktua ez da ona izan, berdin Google, Microsoft eta Applek hezkuntza mundurako landu dituzten paketeek oro har utzi duten emaitza, Pablo Garaizar Teknologia irakasleak 2021ean emandako hitzaldi batetan nabarmendu zuenez.

Are gehiago, Garaizarren hitzetan, azterketa guztien arabera hezkuntzan teknologia pixka bat erabiltzea ona da, baina teknologia askok ez du laguntzen eta batzuetan egoera okertu dezake. Paperean edo pantailan irakurtzearen arteko aldea jarri zuen adibide: hamar urteotako ikerketek erakutsi dute paperean hobeto irakurtzen dugula. Beste etsenplu bat: zenbat eta teknologia gutxiago, orduan eta hobeto egiten dira matematikako ariketak eta orduan eta hobeto garatzen da pentsamendu abstraktua.

Alegia, teknologia berriak ikasgeletan gero eta gehiago sartzen ari diren honetan, espiritu kritikoa behar du hezkuntzak: gailu berriak zenbat, zein kasutan, nola eta zertarako erabili gogoetatzea dagokigu, ikasketa prozesua errazteko tresna izan daitezen, ikasketa prozesua baldintzatu ordez. Gaur gaurkoz, urrun irudikatzen da eskola digitala: IKTen garrantziaz hitz egiten da, baina kasu askotan, borondatea eta gaian interesa duen irakasleren bat ez badago, jai du ikastetxeak. Erronkak ere ez dira makalak: irakasleen formazio eta trebakuntza, azpiegitura egokien beharra, teknologia edukiz betetzea eta zentzuz erabiltzea, teknologia berrien arabeko materiala sortzea, pedagogia egokitzea... eta Google eta enparauei –enpresa pribatuen interes, negozio eta botereari– eskolan zein leku egin nahi zaien erabakitzea.

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak abenduan iragarritako dirulaguntzetan handiena ikastetxe publikoetako baliabide digitalak eskuratze bideratuko da: 54,4 milioi euro ikasgela digitalak osatzeko (pantaila interaktiboak, ordenagailu eramangarriak, gelako web kamerak, tableta digitalak...). Ongi etorriak baliabideak, baina ondo pentsatutako plangintza batekin iritsi daitezela. ●